



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 3a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/ITP-00015. Interpelazioa, boluntarioria arloko politika orokorrari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (3. or.).
- 11-23/ITP-00016. Interpelazioa, “Nafarroa marka” delakoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- 11-23/POR-00203. Galdera, despopulazioaren aurkako borrokan etxebizitzarik ezak sortzen duen erronkari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00204. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoa Nafarroako Foru Komunitatean izaten ari den eraginari eta hartzen ari diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00150. Galdera, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00151. Galdera, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00152. Galdera, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00153. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00154. Galdera, 5G Sariei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00155. Galdera, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00156. Galdera, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).

- 11-23/PES-00157. Galdera, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00158. Galdera, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00159. Galdera, enpresa-kudeaketan prebentzioa integrazteko programari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00160. Galdera, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean erailldako nafarren aitortzarako jarduketei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00161. Galdera, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00162. Galdera, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurre-
tiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00163. Galdera, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilere
i buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00164. Galdera, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa. Raquel Garbayo Ber
donces andreak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00165. Galdera, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren
hartzaileei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00166. Galdera, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces
andreak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00167. Galdera, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko
Batzordearen bilere buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00168. Galdera, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa. Raquel Garbayo
Berdonces andreak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00169. Galdera, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa.
Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa)
bi patronatukide hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (20. or.).
- 11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde
Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako hautatu beharreko bi kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrika
tzea (20. or.).
- 11-23/ELC-00004. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako hautatu beharre
ko lau kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (21. or.).
- 11-23/ELC-00011. Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar
dituen bi kideak hautatzea (21. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoa-
ren eskuragarritasunari buruzkoa (23. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/ITP-00015. Interpelazioa, boluntariotza arloko politika orokorrari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako interpelazioa, boluntariotza arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, boluntariotzaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten dio Lehendakariatzako eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Boluntariotza lehen mailako tresna da demokrazian sakontzeko, herritarren parte-hartze antolatua dakartzan balio inplizituengatik eta interes orokorrarekiko konpromisoa adierazten duelako, justiziaren, gizarte-kohesioaren eta gizarte inklusiboago, erlazionalago eta parte-hartzaileago bat ahalbidetuz.

Espiritu horretatik abiatuta, eta kontuan hartuta administrazio publikoen erantzukizuna dela herritarrek Foru Komunitatearen garapen sozialean duten inplikazioa aitortzea eta sustatzea, Nafarroako Gobernuaren betebeharra da partaidetza sozial antolatuaen modu oro sustatzea, guztien ongia eta gizarte berdinzaleago, solidarioago eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egitea helburu duena.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuko Lehendakariatza eta Berdintasun kontseilariari interpelazioa aurkezten diogu boluntariotzaren arloko politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2023ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-23/ITP-00016. Interpelazioa, “Nafarroa marka” delakoari buruzkoa*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako interpelazioa, “Nafarroa marka” delakoari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, “Nafarroa Marka”ri buruzko interpelazioa aurkezten dio Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Lehendakaritza eta Berdintasun kontseilariak iragarri zuen bere departamentuaren helburuetako bat “Nafarroa Marka” bultzatzea dela, herrialde-marka eta balio-iturri gisa. Foru gobernuak lan egiten du lurralde-marka erakargarria, indartsua eta sendoa izan dadin, eta konfiantza eta erakargarritasuna sor dezan, ez soilik estatu mailan; aldiz, nazioartean ere aitortza izatea nahi du.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Berdintasun kontseilariari interpelazioa aurkezten diogu “Nafarroa Marka”ri buruz.

Iruñean, 2023ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

F saila:
GALDERAK

11-23/POR-00203. Galdera, despopulazioaren aurkako borrokan etxebizitzarik ezak sortzen duen erronkari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, despopulazioaren aurkako borrokan etxebizitzarik ezak sortzen duen erronkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urrian egin zen Iruñean Presura 2023 Azoka, Landa Eremuko Espainiaren Birpopulaketa Feria Nazionala. Azoka irekitzeko ekitaldian, azokako zuzendari Joaquín Alcaldek bi erronka handi aipatu zituen despopulazioaren aurka borrokatzeko: mugikortasuna eta etxebizitza falta. Zer lan-ildo garatuko du zure departamentuak despopulazioaren aurkako borroka planteatzen duen erronka handienetako bati, etxebizitzari, aurre egiteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

11-23/POR-00204. Galdera, gaixotasun hemorragiko epizootikoa Nafarroako Foru Komunitatean izaten ari den eraginari eta hartzen ari diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Gaixotasun hemorragiko epizootikoa Nafarroako Foru Komunitatean izaten ari den eraginari eta hartzen ari diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean ahoz erantzuteko.

Iragan ekainaren amaiera aldera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak modu ofizialean baieztatu zuen Espainian aurten izan den gaixotasun hemorragiko epizootikoaren lehen fokua. Patologia hori iaz, urte amaieran, agertu zen lehen aldiz gurean, eta zerbidoi eta behiei eragin die orain arte.

Gaixotasuna zer eragin izaten ari da Nafarroako Foru Komunitatean eta zer neurri hartu edo hartuko dira?

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-23/PES-00150. Galdera, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer laguntza ekonomiko eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak galdara edo instalazio termiko zentralizatuak berritzeko? Ehunekoak eta zenbaitoak bereizten al dira galdara berrien energia-iturri motaren arabera, berriztagarria den edo jatorri fosilekoa den kontuan hartuta?

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-23/PES-00151. Galdera, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen

denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den irailaren 28an, Nafarroak Parlamentuan mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren zenbait puntu aldatzan, atzera egitea dakartelako prestazioei dago-kienez, gure erkidegoan horren aurretik zegoen araudiarekin alderatuz gero. Zehazki, aurreko arauan baino modu murriztaileagoan mugatzen dituzten artikulua aldatzea eskatzen zen: herritarrak finantzatzeko aukera, preskripzio-gaitasuna, preskripziorako irizpide murriztaileak eta bateraezintasunak.

Aipatu foru dekretua 2023ko urriaren 1ean indarrean sartzea aurreikusten zela kontuan hartuta, zertan da foru dekretuaren aplikazioa? Zer urrats egin dira onetsitako mozioa aintzat hartzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00152. Galdera, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan: zer azterlan egin ditu berriki Ingurumen Departamentuak eta zer neurri hartzen ari da Nafarroako basa eper gorriaren populazioak duen gainbehera orokorra arintzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-23/PES-00153. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu al da Gardentasunari buruzko Foru Legean ezarritako informazio guztia –SEEPeko funtsen mugariak eta helburuak, eta horiek egikaritzeko izapidetutako kontratuak–? Ezezkoan, adierazi arrazoiak.

2.- Next Generation funtsen webgunean zentralizatu al da SEEPeko funtsen dirulaguntza-deialdiei eta lizitazioei buruzko informazioa eta aurreikusten diren hurrengo deialdien argitaratzea, eskuragarri dagoen finantzaketari buruzko informazio homoginoa emateko eta interesdunei baliabide horietarako sarbidea errazteko, eragotzi gabe departamentuek informazio hori SEEPeko azpiproiektuei buruzko informazio espezifikoarekin osatzea? Ezezkoan, adierazi arrazoiak.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00154. Galdera, 5G Sariei buruzkoa*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, 5G Sariei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera idatzi hau erretiratzea eskatzen du:

2022ko uztailean, Nafarroako Gobernuak "5G sarien" I. edizioaren deialdia iragarri zuen, kultura berritzailea sustatzeko eta teknologia mota horrek industriaren arloan eta gizarte osoarentzat eskaintzen dituen ahalmenei eta aukerei buruz sentibilizatzeko. Sariak 2023ko martxoan eman ziren.

- 1.- Zergatik ez dira deitu sari horiek 2023an?
- 2.- 2024rako deituko al dituzte?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00155. Galdera, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuaren eledun Amparo López andreak idatziz erantzun dezan:

PSOEren eta SUMAren artean sinatutako ituna ezagutu ondoren, non 2,5 ordu baino gutxiagoko hegaldiak ezabatzea jasotzen den, eta Nafarroako Gobernuko eledunak gobernu-bilkuraren ondoren egindako adierazpenak entzun ondoren, zeinetan ziurtatzen baitzen akordio horrek ez diola eragingo Iruñeko aireportuari: Nafarroako Gobernuak elkarriketarik izan al du Espainiako Gobernuarekin, Iruñeko aireportuak Madrilerako hegaldi erregularrak egiten jarraituko duela ziurtatzeko? Eta Iruñeak hiriburuarekiko hegaldi erregularrak galduko balitu, zer berme eskaintzen ditu Gobernuak nafarrei kalterik ez eragiteko?

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/PES-00156. Galdera, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen 6. artikulua xedatzen duenez, segurtasun publikoaren arloko eskumena ematen zaion departamentua Foru Komunitateko herritarren babesari eta segurtasunari buruzko politika gauzatzeko ardura duen organoa da, eta berari dagozkio, ildo horretan,

Foruzaingoaren goi zuzendaritza eta udaltzaingoen koordinazioa.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Zertan zehazten du segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuak – normalean, barne gaiekin lotutako eskumenak izan dituenak – koordinazio-eginkizun hori?

2.- Zein organo dago Nafarroan Barne Departamentuaren eta udaltzaingoen arteko koordinazioa garatzeko?

3.- Barne Departamentuak eskatu al dio noizbait udaltzaingoren bati bere eginkizunen gaineratik ez jarduteko, Polizia Judizialaren eginkizunak –udaltzaingoari ez zegozkionak– betetzen ari zelako?

4.- Ezagutzen al du Barneko Departamentuak Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionalean hartutako Akordioa, zenbait udaltzaingok indarrean dagoen legediak ezarritako eskumen-esparrutik kanpo berariazko polizia judizial gisa jarduteari buruzkoa?

5.- Barne Departamentuak hartu al du erabaki edo neurririk udaltzaingoren batek ez dagozkion Polizia Judizialaren eginkizunak betetzea saihesteko? Zein, zehazki?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00157. Galdera, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Larrialdietarako 112 telefonoan jasotzen diren deien protokoloak bertako langile operatiboentzako jarraibideak ezartzen ditu, deiak polizia-larrialdi edo -urgentziei buruzkoak direnean.

Protokolo horretan ezartzen denez, "gaia larria bada (ikus kasuen zerrenda) AKZra pasatuko da, entzutearen edo interkomunikazioaren bidez informatuz, eta ahal den guztietan deia pasatuz". Jarraian adierazten da –Foruzaingoaren AKZrekin komunikatu ondoren– "kasuko udaltzaingoari jakinaraziko zaiola eta Foruzaingoari abisu eman

zaiola". Hau da, sistema bat ezartzen da "gai larrien" kasuan (eraiketak, giza hilketak, arma zuriz edo su-armaz egindako erasoak, pertsonen lesioak eragiten dizkietenak, bahiketak edo pertsonen askatasun anbulatorioaren murrizketak, indarkeriazko lapurretak edo larderiaz edo gauzetan indarra erabiliz egindakoak, hildakoen edo hilotz-hondarren aurkikuntzak, lan-istripu larriak, bonba-mehatxuak, ordena publikoa larriki aztoratzea) hasierako komunikazioa Foruzaingoaren AKZrekin egiteko, eta ondoren kasuko udaltzaingoari gertakizunaren berri ematen zaio.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Noizbait aldatu al da aipatu protokoloaren edukia?

2.- Barne Departamentuak ba al daki Iruñeko udalerrian "gai larri" horiek gertatzen direnean protokoloa urratzen dela eta hasiera batean egoera larriaren berri udal horretako Udaltzaingoari jakinarazten zaiola eta ez Foruzaingoaren AKZri?

3.- 112aren Aretoko langileak atxikita dauden Zerbitzua kokatzen den departamentuko ardurdunek inoiz eman al dute jarraibiderik gertakarien berri Iruñeko Udaltzaingoari eta, ondoren, Foru Poliziaren AKZri emateko?

4.- Zenbat aldiz aldatu da aipatutako protokoloa? Noiztik egiten da polizia-larrialdiaren berri hasiera batean nori ematen zaion alderantzizko praktika hori?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-23/PES-00158. Galdera, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrásen,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, idatziz erantzun dezan:

Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzako profesionalen erreklamazioen berri izan du gure taldeak –erreklamazio horiek Diario de Navarra egunkariak jaso zituen 2023ko ekainaren 1ean–, eta orobat jakin dugu badela arrisku psikosozialei buruzko txosten bat, zeinean zenbait hobekuntza proposatzen baitira zuzendariordetza horretako zerbitzuei dagokienez. Hori horrela, honako galdera hau egiten dugu: Zer neurri hartu dituzue txosten horretako gomendioak eta profesional horien eskaerak betetzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-23/PES-00159. Galdera, enpresa-kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, enpresa-kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2022an jarri zen abian Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak diseinatutako "enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko programa". Programaren xedea da prebentzioa enpresaren kudeaketan integratzea eta arriskuen kudeaketa hobetzea lanaren ondoriozko kalteen maiztasuna eta larritasuna murrizte aldera. Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut: Nafarroako Gobernuak zer neurri eta zer ekintza abiarazi ditu enpresak integratu eta erakartzeko programaren zabalkundea egiteko? Zer enpresak parte hartu dute azterlan pilotuetan? Zer enpresak egin dute bat programarekin?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an.

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00160. Galdera, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean eraildako nafarren aitortzarako jarduketei buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean eraildako nafarren aitortzarako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak idatziz erantzun diezaion: Zure departamentuak –edo honen aurrekoak, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak– ezer egin al du Errepublikako gobernuaren kontrolpeko lurraldean 1936tik 1939ra bitarte eraildako nafarren aitortzari begira?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/PES-00161. Galdera, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2022ko ekainaren 29an, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatu zen Osasun Bartzordean. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz. 1., 2., 3. eta 4. puntuak onetsi egin ziren (8 boto alde, bat ere ez kontra, eta Navarra Sumaren 6 abstentzio). 5., 6. eta 7. puntuak ere onetsi ziren (14 boto alde, bat ere ez kontra eta abstentziorik ez). Honako hau onetsi zen:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei bermatzea eragin zuzeneko ahotiko

antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendioekin bat.

2. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen bidezko ahotiko tratamendu antikoagulatzailearen hasiera malgutzea, aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteek iktusa eta/edo odolgalera handiagoa pairatzeko arrisku handia erakusten dutenean, eta/edo K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioa lortzeko aukera gutxi dutenean.

3. Hiru hilabetera jaitea K bitamina-antagonistatik eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileetarako aldaketa baimentzeko epea K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioaren kontrol txarra duten pazienteekin.

4. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek gaur egun behar duten ikuskapen-bisatua sinplifikatzea, geroagoko berrikusketa duen bisatu automatikora iraganez.

5. Osasun arloko profesionalendako alerta-sistema informatizatu bat ezartzea, garaiz identifikatu ahal izateko gaizki antikoagulatuta dauden pazienteak eta tratamendua aldatzeko neurriak aldatzeko.

6. Kalitate-auditoriak gehitzea iktusaren prebentzioan eta antikoagulazioaren kontrolean.

7. Antikoagulatutako pazienteen behatoki bat sortzea, bizitza errealeko datuak bildu ahal izateko".

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut:

– Zein izan da eragin zuzeneko antikoagulatzaileak direla-eta onetsitako mozioan jasotako erabaki bakoitzaren ezarpen-maila?

– Zer aurreikuspen darabilzue erabaki bakoitzaren ezarpenari begira? Zein izan liteke zazpi neurri horiek abian jartzeko berriazko kronograma?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-23/PES-00162. Galdera, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariak Nafarroako Parlamentuan gaur adierazi du, parlamentari naizen honek egindako ahozko galdera bati erantzutean, ebaluatu egingen dutela irailaren 23an iragarritako neurriaren funtzionamendua; hau da, erregistroko eta herritarrei arreta egiteko bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ezarpenaren funtzionamendua. Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

1. Noiz egingen da ebaluazio hori?
2. Zeren bidez egingen duzue ebaluazioa?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-23/PES-00163. Galdera, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilerei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: Zenbat bilera eta zein egunetan egin du 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialetako bakoitzak (enplegua, etxebizitza, osasungintza eta hezkuntza) eratu zenetik gaur egun arte? Zehaztu mahai bakoitzaren arabera.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00164. Galdera, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: NASTATEk egiten duen Nafarroako errentaren estatistikaren arabera, gure erkidegoan zertan da pobrezia larria? Xehakatu datuak 2015etik hasi eta gaur arte.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00165. Galdera, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren hartzaileei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren hartzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: errenta bermatua jaso eta lan egiteko moduan dauden pertsonen zer portzentajek lortu du lana prestazioaren lehenbiziko 12 hilabeteetan? Zeintzuk dira kopuru absolutuak aldagai bakoitzean?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00166. Galdera, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: Nafarroan zein da eskola-uzte goiztiarraren portzentajea azken urteotan? Xehakatu datuak 2015etik hasi eta gaur arte.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00167. Galdera, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko Batzordearen bilerei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko Batzordearen bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den administrazioarteko batzordea zenbat aldiz bildu da eta bilera horiek noiz egin dira, batzordea eratu zenetik gaur arte?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00168. Galdera, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroan zein da ez ikasle ez langile ez diren gazteen portzentajea? Xehakatu datuak 2015etik hasi eta gaur arte.

2. Nafarroan azterlan hori osatu al da bestelako iturri edo azterlanekin, Ministerioak ematen dituen datuen osagarri?

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00169. Galdera, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion: Lortu al da errenta bermatua jasotzen duten pertsonen eta gainerako herritarren arteko aldea murriztea depresioari, antsietateari, nahasmendu mental larriari, obesitate-tasa edo gainpisuari eta diabetesari dagokienez? Xehakatu datuak alderdi horietako bakoitzaren, sexuaren, murrizketa-porzentajeen eta 2015etik aitzinako urteen arabera.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko urriaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzeko arauekin bat, zeinak Mahai honek 2023ko urriaren 2an hartutako erabakiaren bidez onetsi baitziren (16. NPAO, 2023-10-6koa), ERABAKITZEN DA:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patro-

natukide hautatzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Rubén Unanua Ruiz jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– José Antonio Villanueva Oyarzabal jauna, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako hautatu beharreko bi kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko urriaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako bi kide hautatzeko arauekin bat, zeinak 2023ko urriaren 16ko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsi baitziren (21. NPAO, 2023-10-20koa), ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako hautagai aldarrikatzea, Hezkuntza Batzordearen ordezkari gisa, honako foru parlamentari hauek:

– Pedro González Felipe jauna eta Raquel Garbayo Berdonces andrea, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– María Inmaculada Jurío Macaya andrea, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Eneka Maiz Ulaiar andrea, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00004. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako hautatu beharreko lau kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko urriaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako lau kide hautatzeko arauekin bat, zeinak 2023ko urriaren 16ko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsi baitziren (21. NPAO, 2023-10-20koa), ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilurako hautagai aldarrikatzea honako foru parlamentari hauek:

– Cristina López Mañero andrea, titularra, eta Marta Álvarez Alonso andrea, ordezkoa, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Kevin Lucero Domingues jauna, titularra, eta María Teresa Esporrín Las Heras andrea, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Irati Jiménez Aragón andrea, titularra, eta Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea, ordezkoa, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Blanca Regúlez Álvarez andrea, titularra, eta María Roncesvalles Solana Arana andrea, ordezkoa, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00011. Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzea

2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru-dekretuak, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duenak, 13. eta 15. artikuluetan ezarri eta definitu zituen Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren izaera eta eginkizunak. Kontseilu horren osaera otsailaren 16ko 12/2022 Foru Dekretuan zehaztu zen, zeinak kontseilu hori arautzen baitu. Bada, foru dekretu horren 5.1 c.1) artikulua ezartzen du kontseiluko bi kide hautatuko dituela Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak, zeina gaur egun Lurralde Kohesiorako Batzordea baita.

Lurralde Kohesiorako kontseilariak, urriaren 26ko idazki batean, adierazi zuen ezen aipatu kontseilua gaur egun berritze-fasean dagoela.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautaketa horretarako arau berariazkorik. Hori dela-eta, Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluekin bat, prozedurazkoa da

Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aipatu hautaketa egiteko arauak onestea.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

Lehena. Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzeko prozesua hastea.

Bigarrena. Arau hauek onestea Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak hautatu behar dituen bi kideak hautatzeko:

1. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Lurralde Kohesiorako Batzordeko lehendakariari aurkeztuko dizkiote hautagaitzak (titularrak eta ordezkok). Ez dute zertan Legebiltzarreko parlamentari izan. Titularrak eta ordezkok proposatzean, ahalegina egingen da emakumeen eta gizonen arteko oreka errespetatzeko.

Hautagaitzak aurkezteko epea **heldu den 2023ko azaroaren 9ko 17:30ean bukatuko da.**

2. Lurralde Kohesiorako Batzordean egingen da hautaketa, txartel bidezko isilpeko bozketan.

3. Aldi berean hautatuko dira bi kideak, eta, zenbat postu hautatu behar den, txartelean horrenbeste izen jarri ahalko ditu batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

4. Boto gehien lortzen dituzten bi hautagaiak izanen dira hautatuak.

5. Postuetakoren batean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Onestea “Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzkoa”.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzkoa

HITZAURREA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea indarrean sartzearekin, artxibo eta erregistro publikoetan dagoen informazioa eskuratzeko eskubidea aitortu zitzaizen administrazio-prozeduretan interesdun zirenei ez ezik, baita orokorrean herritarrei ere; hain zuzen, Espainiako Konstituzioaren 105. b) artikuluen interpretazio zabalagoa egin zen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotakoa baino.

Aurretik, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak jorratu zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jardueraren gardentasuna, bai eta

Foru Administrazioaren eskuetan dagoen informazioa eskuratzeko eskubidea ere.

Gaur egun, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak oinarri du informazioaren eta datu publikoen jabetza herritarrena dela, eta Administrazioa behartuta dagoela horien berri ematera, salbu eta esanbidez tasatutako kasuetan eta datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin talka egiten denean. Eskubidea hain da zabala, non haren erabilera-murritzapenek haren xedearekiko eta haren babes-ematearen helburuekiko proportzionalak izan beharko baitute, halako moldez non mugaketa oro justifikazioz eta uzurtasunez egin beharko den.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berriak, 2023ko martxoaren 16an onetsiak, XX. titulua dauka, non jorratzen baitira gardentasuna eta jarduera parlamentarioari buruzko informazio publikoaren eskuragarritasuna. Titulu horrek erantzuten dio Nafarroako Parlamentuaren legegintza- eta administrazio-jarduera herritarrei hurbiltzeko beharri, bai eta Legebiltzarraren araudia Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legetik datozen printzipio informatzaileetara egokitzeko beharri ere, printzipio horiek Nafarroako Parlamentuari zuzenean aplikatzekoak izaki, lehen xedapen gehigarriaren poderioz.

Beraz, Nafarroako Parlamentuko gardentasunari eta jardueraren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari buruzko Erregelamendu honek garatu egiten du aipatu XX. titulua, eta Nafarroako Parlamentuaren esparruan buru ematen dio, Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko 2023ko urtarrilaren 16ko Erregelamenduko V. Kapituluekin batera, gai horren araupetzeari.

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honek xede du Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren XX. titulua

garatzea, zeina eskainita baitago gardentasunari eta jarduera parlamentarioaren gaineko informazio publikoaren eskuragarritasunari, bai eta arautzea ere informazio hori eskuratzeko eskubidea.

I. KAPITULUA Gardentasuna

2. artikulua. Gardentasun Ataria.

1. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa Gardentasun Atari bat edukiko du. Gardentasun Atariaren egitura eta edukia erregelamendu honen eranskinean xedatutakora egokituko dira.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, bestelako edozein informazio sartzen ahalko du edukian, horren berri ematea garrantzizkotzat jotzen badu.

3. Idazkaritza Nagusiak behar diren neurriak hartuko ditu haren edukia mantentzeko eta aldi behin eguneratzeko.

3. artikulua. Printzipio teknikoak.

1. Gardentasun Ataria honako printzipio tekniko hauen arabera izan beharko da:

a) Irsgarritasuna: dokumentuei eta informazio-baliabideei buruzko informazio egituratua eman da, informazioaren identifikazioa eta bilaketa errazte aldera.

b) Elkarreragingarritasuna: argitaratutako informazioak elkarreragingarritasun-arau teknikoak bete ditzen bilatuko da.

c) Berrerabilera: sustatuko da informazioa argitaratu dadila haren berrerabilera ahalbidetzen duten formatuetan.

2. Printzipio horiek une bakoitzean dauden aukera teknikoetara egokituko dira.

II. KAPITULUA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

4. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko baldintzak.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen titulartasuna, esparru materiala eta mugak eta, kasua bada, eskatutako informazioaren eskuratzeko partziala, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera izanen dira.

5. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.

1. Nafarroako Parlamentuko Informazio Bulegoari dagokio informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaerak izapidetzea eta Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Nagusiari ebazpen-proposamen bat igortzea, erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera.

Alabaina, informazioa Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa argitaratuta baldin bada, Informazio Bulegoak zuzenean emanen du erantzuna, eta eskatzaileari adieraziko dio nola eskura dezakeen hark bere eskaeran eskatutakoa.

Legebiltzarraren artxiboan dagoen dokumentazio inaktibo edo erdi-aktiboaren kasuan, Informazio Bulegoak Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari igorriko dio eskuratzeko eskaera. Unitate organiko horretan, horren araudi bereziaren eta erregelamendu honen printzipioen arabera izapidetuko da, eta ebazpen-proposamen bat igorriko zaio Idazkaritza Nagusiari.

2. Idazkaritza Nagusiari dagokio informazio publikoa eskuratzeko eskaerei buruz ebaztea.

6. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren Informazio Bulegoa.

1. Informazio Bulegoa Kudeaketa Parlamentario Atalari atxikita egonen da.

2. Idazkaritza Nagusiak Informazio Bulegoaren abiarazpen eta funtzionamendurako beharrezkoak diren antolaketa-neurriak hartuko ditu.

3. Honako funtzio hauek izanen ditu Informazio Bulegoak:

a) Edukiei buruzko mapa bat eguneratuta mantentzea, zeinetan identifikatuko baitira Nafarroako Parlamentuak dauzkan informazio-mota desberdinak.

b) Informazioa eskuratzeko eskaerak jasotzea eta izapidetzea; eta, Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa argitaratu gabeko edukia daukaten horien kasuan, ebazpen-proposamen bat bidaltzea Idazkaritza Nagusiari.

c) Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa argitaraturiko informaziorako eskaerak jaso, izapidetu eta erantzutea.

d) Legebiltzarraren Artxiboan dagoen dokumentazioa eskuratzeko eskaerak jasotzea eta haiek igortzea Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari.

e) Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistro bat kudeatzea eta hartzen diren ebazpenak Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoko Gardentasun Atarian argitaratzea.

f) Idazkaritza Nagusiari proposatzea erregelamendu hau egokiro aplikatzen dela ziurtatzeko behar diren neurri guztiak.

7. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskaera.

1. Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzekeo prozedura hasiko da kasuko eskaera aurkeztearekin.

2. Eskaerak honako datu hauek bildu beharko ditu:

a) Eskatzailearen nortasuna.

b) Eskatzen den informazio zehatza. Ez da ezinbestekoa dokumentu edo espediente zehatz bat identifikatzea.

c) Eskatutako informazioa eskuratzeko formatua.

d) Harremanetarako helbidea, ahal dela elektronikoa, eskatzailearekin komunikatzeko modua ematen duena.

3. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa inprimaki elektronikoa bat eskainiko du, informazio-eskaerak aurkezteko modua ematen duena.

4. Eskaerak Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkezten ahalko dira.

8. artikulua. Ez onartzeko arrazoiak.

Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Nagusiari egokituko zaio ez onartzea, ebazpen arrazoitu bidez, honako inguruabar hauetakoren bat duten eskaerak:

a) Informazioa eskuratzeko eskubidetik salbuesita dagoen informazio bati buruzkoak direnak, gardentasunaren arloko legerian edo Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, bai eta kontsulta juridikoak eta txosten- edo irizpen-eskaerak direnak ere.

b) Prestaketa-fasean nahiz argitaratze orokorrekoan dagoen informazioari buruzkoak.

c) Helburu gisa dutenak izaeraz lagungarria edo sostengukoa den informazioa; adibidez, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan edo barne-esparruko nahiz administrazio-organo edo entitateen arteko komunikazio eta txostenetan jasotzen dena, baldin eta ez badago kalifikatuta espediente baten osagai gisa.

d) Jakinarazia izan aurretik birmoldatu behar den informazio bati dagozkionak.

e) Eskatutako informazioa ez dagoenean Legebiltzarraren eskuetan.

f) Eskaerak abusuzkoak direnean, nabarmenki arrazoigabeak edo errepikatuak izateagatik edo haien edukiaren luze-zabalarengatik.

g) Eskaera zehaztugabeak direnean, orokorreki eginda egoteagatik, hurrengo artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe.

h) Pertsonen edo erakundeen aurkako adierazpen ez-itxurosoak dituztenean.

l) Erabaki-hartze prozesuetan beharrezkoa den konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea ahultzen dutenean.

9. artikulua. Izapidetzea.

1. Eskaerak ez badu behar bezala identifikatzen eskatzen duen informazioa, hamar eguneko epean informazio hori zehazteko eskatuko zaio eskatzaileari, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta ebazpena emateko epea eten egingen dela.

2. Eskatzailea atzera egindakotzat jotzeko adierazpena eta eskaera artxibatzea ebazpen bidez egingen dira, eta bertan adieraziko dira zein diren balia ditzakeen legezko errekursoak.

3. Gerta baldin baliteke eskatutako informazioak eragina izatea behar bezala identifikatuta dauden hirugarren batzuegan, hamabost eguneko epea emanen zaie, egokituz jotzen dituzten alegazioak egin ahal izan ditzaten. Eskatzaileari urrats horren berri eman beharko zaio. Era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egingen dela alegazioak jaso arte edo horiek aurkezteko epea igaro arte.

Hirugarrenak ez badu horretarako epean erantzuten, ulertuko da ez dagoela ados eskatutako informazioa eskuragarri ipintzearekin. Kasu horretan, ebazteko eskumena duen organoak, hirugarrenek esanbidez nahiz ustez adierazi dutena oinarri hartuta eta gardentasunari buruzko legerian jasota dagoenari jarraikiz, bidezkotzat jotzen duen ebazpena emanen du.

10. artikulua. Ebazpena.

1. Informazioaren eskuragarritasuna onartzen edo errefusatzeko duen Idazkaritza Nagusiaren ebazpena jakinarazi beharko zaie eskatzaileari eta hala eskatu duten ukitutako hirugarrenei, Nafarroako Parlamentuak eskaera jaso eta hilabeteko epean, gehienez.

2. Eskatutako informazioaren bolumenak edo konplexutasunak horretara behartzen duenean, eta eskatzaileari alde aurretik jakinarazita, epe hori gehienez ere hamabost egun luzatu ahal izanen da.

3. Ebazpen arrazoituak izan beharko dira eskuragarritasuna errefusatzekoak, eskuragarritasun partziala edo eskatutakoaz bestelako modu baten bitartezkoa baimentzen dutenak eta eskuragarritasuna hirugarren batek aurka egin izan duen arren baimentzen dutenak.

4. Ezarritako gehieneko ebazte-epetan ez bada berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten, ulertuko da eskaera baietsi egin dela, salbu eta lege mailako arau batek erabat nahiz partzialki errefusatu beharrekotzat berariaz ezartzen duen informazioari dagokionez.

5. Legebiltzarrak Administrazio Zuzenbideari lotuta egiten duen jarduerari buruzko informazioa eskuratzearen arloan Idazkaritza Nagusiak emandako ebazpen ororen aurka zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Ebazpena esanbidezkoa izanez gero, Mahairako errekurtsioa hilabeteko epean jarri beharko da, aurkaratutako egintza jakinarazia izan eta biharamunetik hasita. Ez izanez gero, eskatzaileak eta interesdun izan daitezkeen beste batzuek errekurtsioa edozein unetan jartzen ahalko dute, presuntziozko egintza gertatu den egunaren biharamunetik aurrera.

Errekurtsioa ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da. Behin epe hori iraganda, errekurtsioa baietsizat joko da, salbu eta lege mailako arau batek erabat nahiz partzialki errefusatu beharrekotzat berariaz ezartzen duen informazioari dagokionez.

6. Ebazpenak Parlamentuko Mahaiak ezartzen dituen zertzeladei jarraikiz argitaratuko dira Nafarroako Parlamentuaren webgunean, jasotzen dituzten datu pertsonalak bereizi ondoren.

11. artikulua. Eskuratzearen formalizazioa.

1. Ahal dela, informazioa elektronikoki eskuratuko da, betiere Legebiltzarraren baliabide teknikoek horretarako modua ematen badute.

2. Informazio-eskuratzea doakoa izanen da beti. Nolanahi ere, kopiak egiteak edo informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera eramateak ordainarazpenak ekar ditzake, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako nondik norakoen arabera.

3. Hirugarren batek aurka egin badu, eskuratzea ez da gauzatuko harik eta, ebazpena baiezkota izanda, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko epea igaro bada halako errekurtsorik aurkeztu gabe, edo aurkeztutako errekurtsioa ebatzi bada informazioa jasotzeko eskubidea baietsiz.

Azken xedapenetan lehena. Ordezko araubidea.

Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko Nafarroako Foru Komunitateko legeria ordezko bezala aplikatuko da Nafarroako Parlamentuak Administrazio Zuzenbideari lotuta egiten duen jarduerari buruzko informazioa eskuratzearen eskubidearen arloan, salbu eta aurkaratze-araubidean ezarritakoari dagokionez, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarrita dauden zertzeladei jarraikiz.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunen hartuko du indarra.

ERANSKINA: Gardentasun Atariaren egitura eta edukia

1. ARAUDIA	FORU HOBEKUNTZA
	NAFARROAKO PARLAMENTUKO ERREGELAMENDUA
	GARAPEN-ARAUDI PARLAMENTARIOA
2. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA	HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK
	TALDE PARLAMENTARIOAK
	FORU PARLAMENTARIAK
	PARLAMENTARIAK BILKURETARA JOATEA
	GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK
	FUNTZIONAMENDU-ORGANOAK
	AMAITUTAKO LEGEGINTZALDIAK
3. JARDUERA PARLAMENTARIOA	BILKUREN EGUTEGIA
	BILKUREN GAI-ZERRENDA
	LEGEGINTZAKO EKIMENAK
	LEGEGINTZAKOAK EZ DIREN EKIMENAK
	ZUZENEKO TELEBISTA ETA BIDEOTEKA
	ONETSITAKO LEGEAK
	EBAZPENAK
	ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK:
4. INFORMAZIO EKONOMIKOA	AURREKONTUAK
	KONTUAK
	HILEROKO BETETZEA
	KONTUEN GANBERAREN FISKALIZAZIO-TXOSTENAK
	ARIBIDEAN DAUDEN LIZITAZIOAK
	ADJUDIKATUTAKO KONTRATUAK
	ADJUDIKATUTAKO KONTRATU TXIKIAK
	HITZARMENAK
	KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEKO GASTUAK
	DIRULAGUNTZA-DEIALDIAK
	TALDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK
	TALDEEK AURKEZTUTAKO KONTABILITATEA
	FORU PARLAMENTARIEN ORDAINSARIAK
	INTERESEN ERREGISTROA
	NAFARROAKO PARLAMENTUAREN INBENTARIOA
	NAZIOARTEKO JARDUEREN GASTUAK
	BIDAIK ETA DIETAK
	OPARIAK

5. PARLAMENTUKO ADMINISTRAZIOA	PLANTILLA ORGANIKOA
	LANGILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIAK
	BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK ETA ATXIKIAK
	LANGILEEN ORDAINSARIAK MAILAKA
6. DATUEN BABESA	DATU-BABESERAKO ORDEZKARIA
	DATU-BABESARI BURUZKO ARAUDIA
	TRATAMENDUEN ERREGISTROA
7. INFORMAZIO JURIDIKOA	EDUKI PARLAMENTARIOKO TXOSTEN JURIDIKOAK
	AUZITEGI KONSTITUZIONALAK FORU ARAUBIDEARI BURUZ EMANDAKO EPAIAK
	KONSTITUZIO AUZITEGIAN IREKITAKO PROZESUAK
8. HERRITARREKIKO HARREMANAK	ERREGISTRO ELEKTRONIKOA
	INPRIMAKI ESTANDARIZATUAK
	INFORMAZIO BULEGOA
9. GARDENTASUNA	INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO ESTATISTIKA
	INFORMAZIO-ESKURAGARRITASUNARI BURUZKO EBAZPENAK
10. ARGITALPENAK	LEGERIA
	JARDUEREN OROITIDAZKIA
	NAFARROAKO PARLAMENTUKO ALDIZKARI OFIZIALA
	BILKURA EGUNKARIA